

## ZER EGINGO DUZUE PRODUKTUA EDO ZERBITZUA BEZEROENGANA HELARAZTEKO?

Gure produktua eta zerbitzua bezeroengana helarazteko zenbait gauza egitea pentsatu dugu, baina herritarrak gehiago birziklatzea izango da gure helburua. Alde batetik, gure zerbitzua ezaguna egiteko Durangotik zehar publizitatea egitea erabaki dugu. Hau da, zenbait kartel deigarri jarriko ditugu herritik zehar eta horrela jendearen arreta deituko dugu guk eskaintzen dugun zerbitzuarengan. Horrekin batera aipatzekoa da gure proiektuak teknologia berriak erabiliko dituela modu honetan herritar gehiago erakartzeko,

Beste aldetik, gure produktua(guk bildutako plastikoa) beste enpresa batzuetara saltzeko enpresa haiekin kontaktuan jartzea erabaki dugu, haiei gure helburua eta proiektu honen onurak gizarterako aurkezten. Hau eginez, ziur gaude enpresa hauek guri erosiko digutela plastikoa beste enpresa batzuei erosi beharrean, gure plastikoaren bilketa inpaktu on bat izan duelako Durangon.